

# Azak

TXILLARDEGI



## «KONTUZ,

aberkideok! Kontuz Auto-Determinazioa, Burujabetza, Independentzia, eta gainerako zorakeriak proposatzen dizkiguten horiek. Guk, ongi dakizue, «un sano regionalismo» norteño, eta kito»...

Horrela mintzo zen Magoa. Jakina: ikara hori 'azak jateko', ez bide da oso euskalduna. 'Bazkaria', ezaguna denez, 'barzakaria' besterik ez baita. Alegia: azak jatea, gutxi gora-behera. Geure 'ohitura garbiyak' atxiki nahi izanez gero, azak jateari eutsi behar bide genioke, hain zuzen...

Txantxak aparte utzita, ordea, Burujabetzak mixeria gorrira eraman gintuela esan zuen Magoak: «un sano regionalismo» famatu horrek, ordea, ugartasunera eta aberastasunera eramango gintuelarik.

Eta hemen gaude, Autonomismo betean, neo-karlismo betean. Urte mordoska bat daraganu horretan, hain zuzen.

Hots, egunero-egunero, mixeria gorrian barnago, eta ekonomi-deskalabro osoñi hurbilago gaudela itxu batek ere ikusten du. PNV-PSOE eztaieren ondok, sekula baino bertago dago Hego Euskal Herria basamortu ekonomikotik.

Orain, hauteskondeak heldu direla-ta, zozentzat mintzatzen hasi da betiko Magoa; eta hondamendi lotsagarri eta gutzitko hau, EEaren aitzeikia baliatuz, PSOERI egotzi nahi dio. Nork eman dio aukera PSOERI Jaurtiratzen eta beste hamaika instituziotan sartzeko? Nork eman dio sarrera, eta ematen, PNVko Magoak baizik? Nork esan zuen bidea hauxe zela?

Egoera deskalabratu honetara PNVak ekarri gaitu. PNVak eta autonomismoak ekarri gaituzte mixeria honetara eta 'azak jatera'. Urte ezin hits hauren errudun nagusia PNV da.

Baina ongi dakigu, herri honetan 'azak' jangodituen azkena, Azkoitiko Magoa dela.

# Eslogan bat

HASIER ETXEBERRIA



MODAN dago eslogan artean bizi garela esatea. Ekintzak behar omen diugu, eta ez hitzak. Alferrik omen dira esaldi borobil guztiak, atzetik

ezer ez badator. *Hitzak haizetan doaz* hegala esan zuen poetak. Eta ez zitzaion arazoirik falta. Hala ere, esloganak sintesi mota bat izaten jarraituko da. Pentsamenduaren telegrama bat. Diskurtso laburbildu bat.

Lehendik ugari baldin badarabiltzagu ere, berri baten beharretan gabiltzala uste dut. Nik hala proposatu nahi dut. Hara zergatik.

Euskadi ez da ezer. Hutsaren hurrengo bihurtu zaigu gure herriaren izen hori. Hainbeste joan-etorri, eraman eta ekarri, azkeneko barajako tximuaren pare jarri zaigu: gauza ezberdinak adierazten ditu erabiltzailearen arabera. Bestela galdetu Mario Onaindiari.

Lehen zazpiak bat esan nahi zuten, gero lauk bat eta piku, orain bat bi eta hiru, edo auskalo. Kazetariek, politikariek, oinezkoek... denek dute saltza erabiltzerakoan, eta nahita ala nahigabe, dinamitatuta geratu da azkeneko.

Giltzarri bereziak ezagutu behar dira Corcuera *Euskadi* dienezan zer adierazi nahi duen jakiteko. Gauza bera gertatzen da Telebistako albitegiatan: hitzengitan ari dena ezagutu egin behar da *Euskadi* esandakoan adierazten duena jakiteko.

Eslogan bat proposatu nahi dut, beraz. Kamisetan, hautsontzietan eta nonahi jartzeko. Gezurra badirudi ere, nere identitatea halako zerbaiten beharretan aurkitzen baita.


Muga inguruan bizi diren zuten, *Euskadi* eta *Bizkaia* oso parekoak dira gainera. Zuberero edo Baztango herritarrek, esaterako, ez dute hain begi onez ikusten gure *Euskadi* hori. EGUNKARIA ere oharatu da horretaz bere Estilo Liburuan. Esandakoengatik eta beste askoengatik hara hemendik aurrera nere bekorian idatzita joango den eslogana: *Euskal Herria, Euskadi baino gehiago da, kontxo!!*

# HEMEROTEKA

## ABC

### Elektoralismoa eta su etena

Sozialistek mehatxu terroristatik 92ko ospakizunak gordetzeko zuten kezka oraindik eman zitzaion hasiera «Algerreko mahai» lotsagarriari. (Azkenean, poliziaren lan eraginkorrak baino ez zuten ziurtatu helburua lortzea). Hain ekimen umiliagarri horrek merezi izan zuen kontrako iritzia gorabehera, horren nolabaiteko zurigarritzat oraindik ere gogoraz liteke zaindu nahi ziren ospakizunen entzutea mundu osoan. Baina barkaezina litzateke hauteskunde lenteja batzuen prezio kaxkarraren truke Gobernu sozialista hiltzaileekin trafikatzeko prest egotea Estatuaren xede gorenak helburu alderdikoi ziztrin batzuen mende utziz, horrela terroristen amore emate iragankor eta garestiari etekina ateratzeko. Gobernuak ezin du su eten bat hitzartu ETArekin eta nego-



GALLEGO & REY / DIARIO 16

ziazio bat hasi, hauteskondeei begira Euskal Herriko baketze prozesuan «arrakasta» lortu duelako argudioa erabiltzeko. Hauteskondeei begirako manobra bategatik ezin da arriskuan jarri Estatuaren duintasuna.

EDITORIALA

## EL DIARIO VASCO

### Jauzi genetikoa

Nire geneak ez dira aldatuko EE utzi eta PSE-EE izena hartuko duen beste alderdi baten nire alderdi zaharreko hainbat militante eta beste

hainbat sozialistarekin batera militarzera pasatutakoan, aitzitik, lehen baino askoz kontsekuenteagoa izango naiz Euskadi arrazakoa eta mugiezina ez den zerbitu delako ideiarekin—hain zuzen, Euskadiko Ezkerrakoen hain gustukoa den ideia—, baizik eta euskaldun guztion artean demokratikoki eraiki behar dugun proiektu bat da, edozein izanik ere gure ideologia eta kultura.

Prozesu hori, jakina, ez da alderdi berria sortzearekin batera hasiko, ez eta gutxiagorik ere; izan ere, EAJrekin batera bide luzea egina dugu baina, nahiz eta zalantzarik ez

duan moderno, arrazional eta demokratikotzat jotzeko alderdi hori, batzuetan beren adierazpen ideologikoetan nolabaiteko gehiegieriak egiten ditu eta horien ondorioz batzuei nazio eraikuntzarako prozesu demokratikoen lidergoa izateko gaitasunik ote duen zalantza sortzen zaigu.

Bestalde, edozein egitura demokratikotan ez dago ezer normalagorik alderdi batek lidergo hori lortzearen politika eta ideologiarren esparruan lehiatu nahi izateko baino.

Azken finean, alternantzia demokratikaren funtsetarik bat da.

MARIO ONAINDIA

# ZUZENDARIARI

## Kromletxak

Aralarreko arte-kromletxa kolpatzeak sortu duen larritasunak (sortu badu) ez liguke ahaztu arazi behar gure kultur-kromletxak egunoro sufrizten ari diren kolpe eta irainak.

Aldi historiko batzuetan inposaketa eta basakeriaz eta bestetan gure axolagabekeria eta utzikieriaz. Bietaz gehienetan.

Aralarrekoa berriro ezarriko da, zalantzarik ez dut, eta ez da harritzekoa izango ere inauguraketa horretan justu gure ondare kultural guztiak hondamendira eramaten ari direnak parte hartzea.

Han izango dira euskaldunok historia ahaztu behar dugula dioten postmoderno zintzoak, edo euskararen balioa gutxiesten saiatzen ari direnak. Gure haurren garunak entropia-salda nardagarrian ito nahi dituzten edo gure izaera museo bateko zintzilikarioan eskegita ikusi nahi duten berberak. Europar diskurtso aspergarrian betirako ezkatutu nahi gaituztenak. Arteari aspaldi galdu bait zioten beldurra, ez ordea herriak

sortzen dituen artistei.

Halaz ere ez dago dena galdua. Neuk ikusia Antena 3n. Nieves Herrero espainol aurkezlaria ari zitzaion euskaldunari kolpeka, ETA gaiztoa al da, kondenatzen al duzu, nahikoa kondenatzen al duzu? eta euskalduna ari zitzaion mendetako peajea ordaintzen ondoren zerbitu esatera ausartzeko. Berehala ikusi zen, ordea, korapiloaren gako: Nievesekin espainolak pakearen alde zenbat jekaleratu zen kontatzen ari ziren bitartean (bi, hiru, mila) euskaldunok pertsona haien barrena begiratzen geunden, haien pake egaria neurtzen. Bi begirada eta ikusgune desberdin. Bi talai. Bi herri. Oraindik ere gure kromletx izpirituak zutik dirautenaren testigu, Herrero guztien kolpeen aurrean sendo.

IOSU TXAPARTEGI  
Zarautz (Gipuzkoa)

## Objezioa EHUn

EHUKO errektoreorde den Pello Salaburu jaunak bi artikulu mingarri idatzi berri ditu erdara batuan 'El Correo Español' egunkarian. Gezurrez eta irainez beteriko idazkiok ez dute logika minimorik ere betetzen. Nik ez dakit, eta egia erran ez zait interesatzen, zintzuk ote diren errektoreorde horren meritu akademikoak; Mixtelena zenaren heri damu ospetsu hake, ordea, arrunt ezagunak dira euskal munduan. Daukanak dudu bakarra zera da, eta errektoreorde hori euskal munduan PSOEak daukan 'submarinoa' ote den, batek baino gehiago, urteak direla, erran zuten bezala. Geroak erranen, dena den!

Espero dezagun EHUKO errektoretzan, arrazoi eta justizian oinarritutako bederatzi irakaste ez kaleratu baizik despedituen eskakizuna betetzekotz, gezur eta irain horien gaineko bertze jarrera motako errektoreordeak egon daitezten.

JOSEBA TOBAR ARBULU


Bilbo

# GAIA JARRITA

## Ainhoako bilkura

Ipar-hegoko lehendakariak egun daukate bilkura, ezeztatzeko gaur arte traban zagon muga triste hura. Arrazoi horrek hurbiltzen ditu Ainhoako ingurura; heldu ditela aberri on hau batu dezan helburura, eman bezote egun artean eskas den abiadura (bir).

MANUEL SEIN 'XANPUN'



Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailu: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDA

Gerentse: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: ISAKI URÍA

Zuzendariordeak: LUZIEZ ETXEHARRETA

Zuzendari Komertzialak: JUAN INAZIO HARTSUGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitateak: MARI JOSE SARASA  
HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilloak / 20160 Lasarte-Oria / # 37 15 45 / Faxa: 36 54 93  
Egoitza soziala, Publizitateak eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1, / 20010 Donostia / # 46 90 22 / Faxa: 45 59 57  
Arabs: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / # 23 38 72 / Faxa: 23 38 73  
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13 esk. / (Iruñea dorrea) / 31011 Iruñea / # 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77  
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskum. / 48002 Bilbo / # 423 90 62 / Faxa: 423 94 60  
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila, / 64105 Baiona / # 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11